

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nati Bedialauneta Arkotxa Nati Osoro

*Ondarroa,
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



Biografia



Zaldupebidean jaio eta hazi zen. Gurasoak ere ondarroarrak zituen. Amak Ortiz lantegian egiten zuen lan; aitak, oster, gerra hasieran Ingalaterrara egin zuen alde eta bertan hil zen handik gutxira. Aita abertzale gogorra zen eta klandestinitatean ezpata-dantza maisua izan zen. 11 urte gaz eskola utzi eta lanean hasi zen: umezain, lantegian, Urberuagako hotelean, portuan ("diar eintzailli" eta bodegako arduradun) eta tabernan aritu izan da. Ondarroa bertako Peli Osorogaz ezkondu eta Kaleandira joan zen bizi izatera. Saturrarango kartzelako emakume bati jatekoa eramaten ziotenekoa eta euskarazko lehen eskola klandestinoko berri eman digu, besteak beste.

Zintak

OND-032

- **Proiektua:** Ondarroako institutuko grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basterretxea Alberdi, Aitor - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-03-15
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

OND-033

- **Proiektua:** Ondarroako institutuko grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basterretxea Alberdi, Aitor - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-03-15
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Umetako olgetak

- **Erref:** OND-032/004

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:06:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Zaldupebidean "A la bandera"ka eta "Tres navios"ka aritzen ziren. Sokasaltoan eta pongolan ere jolasten ziren. Pongolak bildotsak belauneko hezurrarekin egiten ziren. Barre asko egiten zuten eta baita burlatu ere.</p>

2. Jendeari barrezka eta burlaka

- **Erref:** OND-032/005
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:06:02. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Bere ahizpa batek ez zuen nahi izaten berarekin kalera irten, jendeari barre eta burla egiten zietelako. Behin "el afilador"ri egin zizkietenak dakartza gogora.</p>

3. Eskolako maistrak

- **Erref:** OND-032/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>11 urtegaz utzi zuen eskola. Eskola nazionaletan ibili zen. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Dotrina ere ikasten zuten bertan. Maistrak aipatzen ditu: doña María gaiztoa zen; doña Anita, ostera, ona.</p>

4. Eskolan erdaraz, kolean euskaraz

- **Erref:** OND-032/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Doña María eta doña María Lusía maistrak erdaldunak ziren; gainerakoak bertakoak. Hala ere, dena egin behar izaten zuten erdaraz. Kolean euskaraz baino ez zen egiten.</p>

Transkripzioa

- Nati: Bai, Doña Maria bai, hori kanpotarra zan hori. Bestik hori ya, Doña Anita ta Blanquita eta ondarrutarrak, e. Doña Maria Luisa be kanpotarra zan, baiñe harek urte guztin... guk hamentxe ezautu gendun. Harek erdera, erderaz eitten eban /etxeban/.

- Elkarrizketatzailea 1: Eta bestiekaz euskaraz?

- Nati: Iñok be ez euskeraz, erderaz baiño. Euskeraz ordun? Euskeraz ordun? Derrepente hilgo gindduezen. Ez euan, euskeraik ez euan ordun.

- Elkarrizketatzailea 1: Eta erdera jakin zenduen?

- Nati: Erderaz, eskolan. Ikasi gendune erderaz ikasi gendun. Otra cosa no.

- Elkarrizketatzailea 2: Ta kalin?

- Nati: E?

- Elkarrizketatzailea 2: Kalin?

- Nati: Kaliin, kalin euskeraz. Erderaz ez badakiau eitten /ezpakiau etxen/. Ordun gitxi genkixen eta on gitxia. On ez dou eitten /eztou etxen/ tantaik erderaz ta.

5. "Urte guztiko eliza"

- **Erref:** OND-032/010
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Dotrina elizan ikasi zuten. Lehen jaunartzea bertan ikasitakoarekin egin zuten. Gazterik hasten ziren: 7 urtegaz lehen jaunartzea eta 11gaz bigarrena. Elizara joatea derrigorra zen. Amama edo ama-edo hiltzerakoan, "urte guztiko eliza" izaten zuten. "Urte guztiko eliza" zer den azaltzen du.</p>

6. Eskolan mutilak aparte zeuden

- **Erref:** OND-032/012
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan giro ona zuten. Ez zuten zigor gogorrik izan. Eskolan mutilak beste alde batean egoten ziren.</p>

7. Gaztetatik denetariko lanak egin behar

- **Erref:** OND-032/015
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:20:51. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Nati gazterik hasi zen lantegian lanean, eta lantegia esku desberdinetatik pasa arren han erretiratu zen. Tabernan ere aritzen zen, gizon artean eta gizonen moduan, berak dioen legez.</p>

8. Kontserba-lantegiko lanak

- **Erref:** OND-032/018
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:23:01. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Kontserba-lantegian zein lan egiten zuten azaltzen du: atun zein antxoia kanpainan. Dena egiten zuten eskuz, baina atun xerrak (tajadak) makinak ebakitzen zituen. Beharraren arabera lanaldia zuten. Astero kobratzen zuten eta ordurako diru nahikoa ei zen. Orduko kobratzen zuten.</p>

9. Irabazitakoa etxean eman behar

- **Erref:** OND-032/019
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:01. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Lanean irabazitako dirua ez zen beretzat. 22 urtegaz Urberuagako hotelera joan zen lanera. Hurrengo urtean San Juanetatik iraila hasiera arte joan zen. 22 urtegaz joan zenean, bertan irabazitakoarekin urte osoko etxeko errenta ordaindu zuen. 24 urtegaz, ezkonberria zela, amaginarrebak ez zion utzi lanera joaten.</p>

10. Urberuagako hoteleko beharra

- **Erref:** OND-032/020
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Urberuagako hotelean egiten zuten lana azaltzen du pasarte honetan. Uniforme dotore-dotore izaten zuten. Irabazitako dirua etxean eman behar izaten zuten.</p>

11. Lanera joateko abisua; "diar eintzailli"

- **Erref:** OND-032/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:31:48. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Urberuagako hotelera lanera joateko abisua arrain-saltzaileen bitartez jasotzen zuen. Hala ere, "etxe handietan" bazegoen telefonoa. Lehen arrastreroetara lanera joateko ere etxez etxe deiadarka abisatzen zitzairen. Nati bera "diar eintzailli" eta bodegako arduraduna zen. Deiadar zelan egiten zuten azaltzen du.</p>

12. Hil-kanpaiak

- **Erref:** OND-032/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:35:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Lehen kalean ez zegoen hildakoen eskelarik. Gizonezkoaren hil-kanpaiak hiru izaten ziren; andrazkoarenak bi; eta, umearena, txilin-txilin.</p>

13. Turruna

- **Erref:** OND-032/024
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:35:03. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Portura arraina sartzen zenean "turruna" jotzen zen, hori beti egon da.</p>

14. Errekan igerian eta hondartza

- **Erref:** OND-032/025
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Hondartzara ez ziren bainujantzia jantzita joaten. Etxeko ondoko errioan ikasi zuten igerian.</p>

15. Aberatsen eta pobreen hondartzak

- **Erref:** OND-032/026
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Lehen bi hondartza zeuden: pobreak txikira joaten ziren eta aberatsak handira. Eurak hasieran txikira joaten ziren; gero, handira. Kasetak aberatsentzako ziren, eta bakoitzak berea izaten zuen. Ahal zuten guztietan joaten ziren hondartzara. Ez zuten eskuoihalik (toallarik) izaten. Eguzkitako kremak "articulos de lujo" ei ziren.</p>

16. Lapetan

- **Erref:** OND-032/028
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Hondartzan zeudela ez ziren haitzetara joaten, ez zegoen holako ohiturarik. Lapak hondartzan bertan hartzen zituzten.</p>

17. Zalduebideko hondar txikia eta haitza

- **Erref:** OND-032/030
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Karramarroak errioan harrapatzen zituzten. Sua egin eta potoetan (piper-potoetan edo) ura irakin eta hantxe prestatzen zituzten. Lapak gehiago gustatzen zitzaizkion. Igerian gazterik ikasi zuen etxe ondoko "hondar txikixe"n, Zalduebideko denek hantxe ikasi zuten. Uretan haitz handi bat zegoen, baina marea gora zegoela tapatu egiten zen eta mare behean handik salto egiten zuten.</p>

18. Errekan bainuak baino ez, garbiketarik ez

- **Erref:** OND-032/031
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Errekan bainuak baino ez zituzten hartzen. Garbiketetarako barrurako dagoen erroa erabiltzen zen. Kontserba-lantegitik irteten zirenean ere joaten ziren bainatzera, zubian beti egoten zen aguazila zain. Uretako jolasak gaur egungo kontuak ei dira, lehen ez zegoen horrelakorik.</p>

19. Estropadetako zaletasuna

- **Erref:** OND-032/032
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

<p>Estropadak beti izan dute indarra Ondarroan. Bertako estropadei buruzko kanta bat ere badago. Herritarrak Donostiara ere joaten ziren ikustera.</p>

20. Ur korrontea, komuna eta argia

- **Erref:** OND-032/034
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:47:33. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Etxean beti ezagutu du ura, iturri bakarra zuten ezkaratzean (sukaldean). Komuna zelako zen azaltzen du. Komuneko papera ez zuten izaten eta egunkaria erabiltzen zuten. Beraien burua garbitzeko txandak egiten zituzten. Neskak garbitzerakoan, mutilak etxetik bidaltzen zituzten. Pobreak izan arren ez zuten ezer falta. Bere ama Ortizeneko lantegiko maistra zen eta ez zuten ezeren faltarik izan. Argia ere beti ezagutu du, hiru zituzten etxean: ezkaratzean (sukaldean), pasilloan eta egongelan.</p>

21. "Arenadura"

- **Erref:** OND-032/035
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:52:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Etxeko egongelan oholezko aulki batzuk baino ez zituzten izaten. Hondartzako harearekin "arenadura" egin eta zuri-zuri jartzen zuten egurra.

"Arenadura" zelan egiten zuten azaltzen du. Egongelan argizaria ematen zuten.</p>

22. Gerran zubia bota eta etxez aldatu ziren

- **Erref:** OND-032/036
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denboran, etxe ondoko zubia bota egin zuten eta beste aldera pasatu ziren, lehengusu-lehengusinen etxera. 9 ume batu ziren bertan helduekin batera. Nazionalak herria hartu zutenean sartzen ikusi zituzten.</p>

23. Aita Ingalaterrara ihesi

- **Erref:** OND-032/038
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:56:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Nazionalak herria hartu zutenean, sartzen ikusi zituzten. Gerra hasieran edo mugimendua hasi zenean, beraien aitak alde egin zuen itsasoz. Frantziatik Ingalaterrara joan ziren eta bertan hil zen.</p>

24. Aita ezpata-dantzako maisu

- **Erref:** OND-032/040
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:56:11. **Bukatu:** 00:57:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Nazionalak herria hartu zutenean kalte asko egin zuten. Herritar asko ere beraien aldekoak ziren, gogorak izan ere. Beraiek, osterak, abertzaleak ziren; aita ezpata-dantzako maisua zen klandestinitatean. Bere ahizpa pospolina zen. Dantzari arropak etxeko egurraren azpian ezkutatu zituzten beldurrez, baina handik atera zituztenerako sitsak janda zeuden.</p>

25. Gerrako erasoak eta babeslekuak

- **Erref:** OND-032/041
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 00:59:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerran, erasoak hasten zirenean, sirenak entzun eta aringa-aringa babeslekura joaten ziren. Gaur egun eskola publikoa dagoen tokian zegoen babeslekua, lur azpian. Mojetako eskolan gurutze gorria jarri zuten, zaurituak sendatzeko.</p>

Transkripzioa

- Sirenaik-eta entzuten zan o?
- Bai, bai. Sartu biher zinin /bizinin/? fua, handixe. Bonbardeu [... zinin] aringa-aringe ontxe eskolak dazen parajea, eskolak dazen parajea. Han subtarreneua da behian, terrazatik, errixo alderdittik. Eskolak hamen, honek eskolok.
- Bai, bai.
- Horrek dakarre subterraneua behian. Ta gu hamen kalaen bixi giñan enda aringa-aringe juten giñan haraxe ezkutatea. Sartu biher zinin /bizinin/ tropak-eta, sireni joten eben, ta haraxe.
- Eta tiroteuak eta balak entzuten zan edo?
- Bai, hamen kanttoipe errebueltan e... "Migel mutu" ezautu zendun?
- Bai, bai.
- Bueno, ba, orduntxe jun gakon harei, mut... hori... balik jo eban etxin dala, beran gurasukin ta ixikokin edo. Enda etxin sartu gakoan bali, enda orduntxe etorri gakon. Ez dakit /eztai/ mutu zan, ala ordun... ez, mutu halakoxi zan ta "bebebe" gero eitten eban /etxeban/ berba. Orduntxe agertu gakon e, uste dot ee... etorri gakonela berbi. Berak eitten eban /etxeban/ berba bakarra. Migel mutuai. Hamen asko heritxu zin. Gero ospittala eon zan gerra denporan, len esan doune, mojetako eskoli, hantxe ipini eben Cruz Roja bat, enda, ba, heritzen zinak edo miñe hartzen ebenak, ba, haraxe eruten zittuzen kurak eittea /etxea/.

26. Emakume soldaduak

- **Erref:** OND-032/043
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:00:42. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Soldaduz jantzitako emakume asko ikusi zituen Ondarroan Gerra Zibilean. Fusil asko ikusten zituzten. Herria hartu zutenean, gainerakoak etxean ezkutatuta egon ziren beldurrez.</p>

27. Egunkaria egunero

- **Erref:** OND-032/045
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:03:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Bere aitak abertzalea zelako egin zuen alde. Egunero erosten zuen egunkaria eta gainerakoei irakurtzen zien. Berak gaur egun dauden egunkariak baino ez ditu gogoan.</p>

28. Ingalaterran zerraldoa ikurrinarekin

- **Erref:** OND-032/046
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:03:56. **Bukatu:** 01:05:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean alde egin zuten gehienak gizonezkoak izan ziren. Aita kanpoan zela, ez zuten beragaz hartu-emanik izan. Bere heriotzaren berri bertan egon zen abade bati esker izan zuten. Hileta-elizkizunean hilkutxa ikurrinarekin estali zuten, etxean dituzten argazkietan ikusten den moduan.</p>

29. Jateko faltarik ez

- **Erref:** OND-032/047
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:05:30. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Aita hil ostean amak ez zuen alarguntasun laguntzarik jaso, ez baitzegoen horrelakorik. Amak behar asko egiten zuen eta horri eskerrak ez zuten ezeren faltarik izan. Ortizen lantegian, amak lan egiten zuen tokian, opil bat ematen zieten egunero.</p>

30. Abertzalea zelako ogia ukatu

- **Erref:** OND-032/048
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:07:15. **Bukatu:** 01:08:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean behin bere ahizpari ez zioten ogi opila eman dendan. Beste ideologia politikoa zuen osabagaz joan eta eman egin zioten.</p>

31. Jangela sozialak

- **Erref:** OND-032/050
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:10:03. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Herriko denda batean erosten zuten astean behar zuten jeneroa. Dirurik ez zuten umeentzat jangela sozialak egon ziren. Platera, koilara eta behar zena etxetik eramaten zuten, baina jatekoa debalde zen. Umeak bakarrik joaten ziren. Batez ere lapikokoa jaten zuten.</p>

32. Euskarazko lehen eskolak

- **Erref:** OND-032/054
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:14:02. **Bukatu:** 01:14:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Euskarazko lehen eskola era klandestinoan jarri zen martxan. Bere semea izan zen bertako lehen umeetariko bat.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com